Agiri horiek iraungita egon arren onartu egingo dira, baina jatorrizkoak izan behar dira. Ez da fotokopiarik onartuko.

Agiri horiek erakutsi arren hautesleearen nortasunari buruzko zalantzarik badago, Mahaiko kideek gehiengoz erabakiko dute, kontuan izanik ekarri diren agiriak eta aurrean dauden hautesleek eman dezaketen lekukotasuna.

Inguruabar horiek dagokion bilkura-aktan jaso behar dira.

2. **Bokalek eta artekariek, hala nahi badute, egiaztatuko dute hauteslea hauteskunde-erroldako zerrendan ageri dela** (zerrenda hori Mahaiari emandako dokumentazioaren barruan egon behar da).

Hauteslea erroldako zerrendan agertzen ezbada, Mahaian bozkatu ahal izango du, soilik baldin eta:

**A)** Mahai horretan egiaztatutako artekaria bada, eta, betiere, barruti horretan inskribatuta badago.

**B)** Boto-emaileak agiri hauetakoren bat aurkezten badu:

- Mahaiko erroldan inskribatuta egoteko eskubidea onartzen dion epaia.

- Errolda-ziurtagiri berezia, Hautesle Erroldaren Bulegoaren Probintzia-Ordezkaritzak emana, hautesleak boto-eskubidea Mahai horretan erabili ahal izan dezan.

  Errolda-ziurtagiri bereziaren bitartez herritarrak frogatu egin dezake indarrean dagoen hautesle-erroldan izena emanda dagoela, nahiz eta bere daturik agertu ez edo okerreko datuak agertu Mahaiak dituen erroldako zerrendetan.

  Erroldako ziurtagiriak bi motatakoak izan daitezke:

  - Erroldatze-ziurtagiriak: hautesle-erroldan inskribatuta egon arren, Mahaiari bidalitako zerrendan ageri ez diren herritarrei dagozkie.

  - Akats materialak zuzentzeko ziurtagiriak: Mahaiari bidalitako erroldako zerrendan boto-emaileen daturen bat (izena edo deiturak, jaioteguna, eta abar) zuzentzeko ematen dira.

Jatorrizko ziurtagiria nahiz Udalaren bidez faxez jasotakoa, biek balioko dute.

Erroldako ziurtagiri bereziak eta epai judizialak kontuan hartu behar dira boto-emaileen zerrenda zenbakidunean, gero boto-kontaketaren aktan eta bilkura-aktan behar bezala konputatzeko, eta Mahaiak gordeko ditu, eguna amaitzean prestatu behar duen hauteskunde-dokumentazioa duen 1 zenbakiko gutun-azalean sartzeko, eskuliburu honen beste atal batean zehazten denaren arabera.



OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

**ELECCIONES**
HAUTESKUNDEAK

**Delegación Provincial de**

**Certificación censal específica**
Errolda-egiaztagiri berezia
DE ALTA

Fecha / Data

Apellido 1° / 1. deitura — 2°. apellido / 2. deitura

Nombre / Izena — N.° D.N.I. / NAN zkia. — Fecha de nacimiento / Jaiotze-data

Municipio / Udalerria — Provincia / Probintzia

Distrito / Barrutia — Sección / Atala — Mesa / Mahaia — Local electoral / Hauteskunde-egoitza

**El/La Delegado/a Provincial de la Oficina del Censo Electoral**
**Certifica**/ Egiaztatzen du:
**Que el/la elector/a cuyos datos personales anteceden, está inscrito/a en el censo electoral vigente**
Gorago adierazitako datuak dituen hauteslea izena emanda dagoela indarreango hautesle zerrendan

HABIENDO SIDO INDEBIDAMENTE OMITIDO EN EL EJEMPLAR CERTIFICADO DE LA LISTA ENTREGADA A LA MESA ELECTORAL

HAUTESKUNDE-MAHAIARI EMANDAKO ZERRENDA EGIAZTATUAN EGOTEA DAGOKIOLARIK SARTUTA EZ DAGOELAKO.

**Y para que conste, a efectos de que pueda ejercitar el derecho de sufragio en la Mesa indicada, se expide la presente, según lo previsto en el artículo 85.1 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General.**
Eta jasota gera dadin eta botorako eskubidea adierazten den Mahaian gauzatu dezan, honako hau egiten da, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoan 85.1 atalean aurrikusitakoaren arabera.

**El/La Delegado/a Provincial**

NOTA: ESTA CERTIFICACIÓN DEBE INCLUIRSE EN EL RESUMEN NUMÉRICO DEL ACTA DEL ESCRUTINIO Y DEL ACTA DE LA SESIÓN DENTRO DEL EPÍGRAFE "N DE CERTIFICACIONES CENSALES PRESENTADAS DE ALTA EN EL CENSO ELECTORAL"

CCE.4-E

ERROLDATZE-ZIURTAGIRIAREN EREDUA



OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

**ELECCIONES**
HAUTESKUNDEAK

**Delegación Provincial de**

**Certificación censal específica**
Errolda-egiaztagiri berezia
DE CORRECCION DE ERRORES

Fecha / Data

Apellido 1° / 1. deitura — 2°. apellido / 2. deitura

Nombre / Izena — N.° D.N.I. / NAN zkia. — Fecha de nacimiento / Jaiotze-data

Municipio / Udalerria — Provincia / Probintzia

Distrito / Barrutia — Sección / Atala — Mesa / Mahaia — Local electoral / Hauteskunde-egoitza

**El/La Delegado/a Provincial de la Oficina del Censo Electoral**
**Certifica**/ Egiaztatzen du:
**Que el/la elector/a cuyos datos personales anteceden, está inscrito/a en el censo electoral vigente**
Gorago adierazitako datuak dituen hauteslea izena emanda dagoela indarreango hautesle zerrendan

FIGURANDO POR ERROR MATERIAL EN LA LISTA DE LA MESA CON LOS SIGUIENTES DATOS
OKER MATERIALA DELA ETA MAHAIKO ZERRENDAN HONAKO DATU HAUEKIN AGERTUZ:

APELLIDOS: NOMBRE:
FECHA DE NACIMIENTO: DNI:

**Y para que conste, a efectos de que pueda ejercitar el derecho de sufragio en la Mesa indicada, se expide la presente, según lo previsto en el artículo 85.1 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General.**
Eta jasota gera dadin eta botorako eskubidea adierazten den Mahaian gauzatu dezan, honako hau egiten da, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoan 85.1 atalean aurrikusitakoaren arabera.

**El/La Delegado/a Provincial**

NOTA: ESTA CERTIFICACIÓN DEBE INCLUIRSE EN EL RESUMEN NUMÉRICO DEL ACTA DEL ESCRUTINIO Y DEL ACTA DE LA SESIÓN DENTRO DEL EPÍGRAFE " N DE CERTIFICACIONES CENSALES PRESENTADAS DE CORRECCIÓN DE ERRORES MATERIALES". NO ALTERA EL N DE ELECRES DE LA MESA.

CCE.4-E

AKATSAK ZUZENTZEKO ZIURTAGIRIAREN EREDUA

Erroldako ziurtagiri berezia EZ DA NAHASTU BEHAR:

1. ERROLDA-TXARTELAREKIN. Hautesle Erroldaren Bulegoak hautesle guztiei bidaltzen die errolda-txartela, informazio gisa, eta

- Ez dute balio hautesleak identifikatzeko.
- Ez dute balio hautesleek bozkatu ahal izateko.

2. ERROLDAKO INSKRIPZIO-ZIURTAGIRIAREKIN. Posta bidez bozkatzeko dokumentazioaren barruan dago.


(Doble y corte por la línea de puntos)

Tarjeta censal
Errolda-txartela

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

Documentación electoral con franquicia postal
Posta-frankiziadun hauteskunde-agiriak

**En cumplimiento del artículo 39.5 de la Ley Orgánica 5/1985 del Régimen Electoral General, se le remite esta tarjeta censal con los datos actualizados de su inscripción en el censo electoral vigente.**
Hauteskundeen Erregimen Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoak 39.5 artikuluan ezarritakoa betetzeko, errolda-txartel hau igortzen zaizu, indarreango Hauteskunde-Erroldan agertzen zarenaren gaurkotutako datuekin.

**Esta tarjeta tiene carácter puramente informativo.**
Honako txartel honek argigarri gisako balioa du.

**Sr. cartero: por favor, indique con una X la causa de la devolución:**
Postari Jn./And., adierazi mesedez X batez itzultzearen zergatia:

| | | |
|---|---|---|
| **Rehusado** / Ez du hartu nahi | ☐ | 1 |
| **Desconocido** / Ezezaguna | ☐ | 2 |
| **Se ausentó sin dejar señas** / Helbiderik utzi gabe alde egin zuen | ☐ | 3 |
| **Dirección insuficiente** / Helbidean zerbait falta da | ☐ | 4 |
| **Fallecido** / Heriotzagatik | ☐ | 5 |
| **Otras causas** / Bestelakoak | ☐ | 6 |

(Doble y corte por la línea de puntos)

OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

**Teléfono:** / Telefon.: **901 101 900**

**En las listas electorales que se utilizarán en las próximas Elecciones figura Vd. inscrito en:**
Datozen Hauteskundeetan erabiliko diren zerrendetan honako honetan zaude izenemana:

**Municipio:** Udalerria:
**Distrito:** Barrutia: **Sección:** Sekzioa: **Mesa:** Mahaia:
**Local electoral:** Hauteskunde-lekua:
**Datos personales de su inscripción:** Zure inskripzioaren datu pertsonalak:
**Fecha de nacimiento:** Jaiotze-data: **D.N.I.:** N.A.N.:
Delegación Provincial:

ERROLDA-TXARTELAREN EREDUA
(AURREALDEA ETA ATZEALDEA)


OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

**ELECCIONES**
HAUTESKUNDEAK

**DELEGACIÓN PROVINCIAL DE**

**Asunto** / Gaia: **CERTIFICACIÓN**/EGIAZTAPENA
**FECHA** / DATA

**APELLIDO 1º** / 1. DEITURA | **2.º APELLIDO** / 2. DEITURA
**NOMBRE** / IZENA | **IDENTIFICADOR** /IDENTIFIKAZIO AGIRIA
**MUNICIPIO** / UDALERRIA | **PROVINCIA** / PROBINTZIA

**Datos de la inscripción censal** / Erroldan dauden datuak
**DISTRITO** / BARRUTIA | **SECCIÓN** / ATALA | **MESA** / MAHAIA

D., D.ª
DELEGADO/A PROVINCIAL DE LA OFICINA DEL CENSO ELECTORAL

**CERTIFICA:**
**Que el/la elector/a cuyos datos y demás circunstancias personales anteceden, se encuentra inscrito/a en el CENSO en el distrito y sección, que también se especifican.**
**Y para que conste, en cumplimiento de lo determinado en el artículo 73 de la Ley Orgánica 5/1985 del Régimen Electoral General, expido la presente certificación, a los solos efectos de que se pueda emitir el sufragio por correo.**
EGIAZTATZEN DU:
Adierazi diren datuen jabe den hauteslea, ERROLDAN dagoela, aipatzen diren atal eta barrutian.
Eta jasota gera dadin, 5/1985 Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoak 73. artikuluan ezartzen duenaren betetzeko eta botoa postaz eman ahal izateko, egiaztagiri hau egiten du.

EL/LA DELEGADO/A PROVINCIAL

**SR./A. PRESIDENTE/A DE LA MESA ELECTORAL** HAUTESKUNDE MAHAIBURU JN./AND. __________ **SECCIÓN:** ATALA: __________ **DISTRITO:** BARRUTIA: _______

6.2-E

ERROLDAKO INSKRIPZIO-ZIURTAGIRIAREN EREDUA

**Botoa posta bidez emateko eskatu dutenek, ezingo dute botoa Mahaian eman.**

Botoa posta bidez emateko eskatu dutenek (erroldako zerrendan haien izenen ondoan “C” letra agertuko da, edo “posta bidezko botoa eskatu duten Mahaiko hautesleen zerrendan” egongo dira, erroldako zerrendaren eranskinean) EZINGO DUTE BOTOA MAHAIAN EMAN.

Orobat, ezin dute Mahaian botoa eman, Mahaiko erroldan agertu arren, beste mahai batean akreditatutako artekariek (hauteskunde-agirien artean, beste mahai batean akreditatu izanaren agiria jasoko da). Behin bakarrik bozka dezakete. Hauteskunde berean birritan edo gehiagotan bozkatzea hauteskunde-delitua da.

3. **Hautesleak Mahaiko lehendakariari emango dio bozkatzeko gutun-azala, itxita. Ondoren, hautesleak sartuko du gutun-azala hautestontzian.**

Botoa ematea egintza pertsonala eta besterenezina da, eta, beraz, hauteslea ezin du beste pertsona batek ordezkatu. Irakurtzen ez dakiten hautesleek, edo desgaitasunen bat izateagatik boto-papera hautatzeko, gutun-azalean sartzeko edota Mahaiko lehendakariari emateko gai ez direnek, laguntza eska diezaiokete konfiantzako pertsona bati.

**Gogoan izan:** gutun-azala hautestontzian sartu aurretik boto-emailearen nortasuna eta erroldako inskripzioa egiaztatu behar dira.

Hautesleak Mahaiko lehendakariari emango dio bozkatzeko gutun-azala, itxita, eta Mahaiko lehendakariak, une batez ere gutun-azala jendearen bistatik ezkutatu gabe, ahots ozenez hautesleаren izena irakurri, eta “botoa emango du” esango du. Ondoren, gutun-azala hautesleari emango dio berriz ere, eta hark sartuko du dagokion hautestontzian.

**4. Hauteslearen izen-abizenak idatziko dira boto-emaileen zerrenda zenbakidunean, botoa eman duten hurrenkera berean.**

Horrez gain, hautesle-erroldako zerrendan duten zenbakia jarriko da, edo, hala badagokio, erroldako ziurtagiri berezia edo epaia ekarri dutela adieraziko da.

Hautesleak eskubidea du boto-emaileen zerrenda zenbakidunean bere izen-abizenak ondo idatzi diren begiratzeko.

Hautesleak ez du deialdiko hauteskunde guztietan parte hartu beharrik; zilegi du hauteskunde batzuetan bakarrik bozkatzea. Deialdiko hauteskunderen batean botorik ematen ez badu, ezin izango du gero etorri hauteskunde horretan botoa ematera. Boto-emaileen zerrenda zenbakidunean horren berri jaso behar da, “x” jarriz abstenitu den hauteskundeari dagokion zutabean.

**Gogoan izan:** Hautesleek hauteskunde-mahaiak hautesle baten bozkatzeko eskubidea egiaztatzeari uko egitean hautesle bati buruz zalantzak badaude baino ezin dituzte erreklamazioak egin.

Hauteskunde-mahaiko lehendakariak ez du inolako kontsultarik onartu behar, bozkatzeko eskubidea gauzatzetik datozenak eta hautagai-zerrenden artekariek edo ahaldunek egindakoak izan ezik. Hautesleek, hala badagokio, kontsultak Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeari aurkez diezazkiokete.

Hauteslea Mahaiaren aurrean kontsulta onartzeko tematzen bada, hauteskunde-mahaiko lehendakariak, jarrera hori uzteko eskatu ondoren, polizia-indarrei laguntza eskatu ahal izango die hauteslekua utz dezan.

**IKUSMEN-URRITASUNA IZAN ETA BRAILLE SISTEMA EZAGUTZEN DUTEN PERTSONEN BOZKETA**

Baliteke izendatu zaituzten Mahaian norbaitek braille bidez bozkatzeko prozedura erabiltzeko eskatu izana.

Mahaiak honela jardungo du orduan:

1. Hauteslearen nortasuna egiaztatu, eta prozedura hori erabiltzeko asmoa azaldu duten pertsonen zerrendan ageri den begiratuko du (zerrenda horren kopia bat izango du Mahaiak, beste agirien artean).

2. Zerrendan ageri dela egiaztatu ondoren, mahaiburuak edo mahaikide batek braille bidez bozkatzeko prozedurari dagokion dokumentazioa emango dio hautesleari.

Dokumentazio horretan prozedura hori nola baliatu azaltzen da, braille sisteman.

3. Halaber, jasotako agiriak erabiltzeko hauteslekuan egokitu den gunea non dagoen azalduko diote mahaikoek, eta hara joaten lagunduko diote.

Gune horretan mahaia, aulkia eta boligrafoa egongo dira hauteslearen eskura (Senaturako hauteskundeetako boto-paperan dagozkion aukerak markatzeko).

Behin boto-emaileak botoa aukeratuta, gainerako hautesleentzat azaldutako bozketa-prozedura berari jarraituko zaio.

**Gogoan izan:**

- Agiriak jaso ondoren, hautesleak, hala nahi badu, hauteslekutik kanpo eraman ditzake, eta geroago itzuli Mahaira, botoa ematera.

- Pertsona horiek, hala nahi badute, konfiantzazko norbaiten laguntza izan dezakete boto-eskubidea baliatu ahal izateko, orain arte bezala.

- Botoa eman ondoren, komeni da boto-emaileak erabili dituen agiriak berak eramatea, emandako botoa sekretua izango dela bermatzeko.

Hauteskunde-mahaietako kideak desgaitasunen bat duten hautesleek bozkatzeko duten eskubidea ahalik eta autonomia handienez balia dezaten bermatuko dute, eta, horretarako, beharrezko diren arrazoizko egokitzapenak egingo dituzte.

# ARRATSALDEKO 08:00ETATIK AURRERA
# BOZKETAREN AMAIERA ETA BOTO-KONTAKETA




## ARRATSALDEKO 08:00ETAN

### 1. BOZKETAREN AMAIERA

Mahaiko lehendakariak ahots ozenez esango du bozketa amaitu dela.

Bozketa eten egin behar izan bada, etenda egon den beste denboraz luzatu behar da bozkatzeko ordutegia.

Bozketaren amaiera iragarri ondoren, hausteslekuan edo hauteslekuko sarreran oraindik botoa eman ez duen hautesleren bat geratzen bada, Mahaiak botoa ematen utziko dio, eta ez dio beste inori utziko botoa ematen.

Jarraian, Mahaiko lehendakariak hautestontzi egokietan sartuko ditu POSTA BIDEZ BIDALITAKO BOTO-PAPERAK:

Mahaiak posta bidez jaso ditzake honako botoak:

- Botoa posta bidez ematea erabaki duten hautesleen botoak.
- Aldi baterako atzerrian dauden hautesleen botoak.

Urrats hauek eman behar dira, **BETIERE AHAZTU GABE BOTO-PAPERA DUEN GUTUN-AZALA EZ DELA IREKI BEHAR:**

1. Banan-banan ireki Mahaiko lehendakariari bidalitako gutun-azalak, eta egiaztatu boto-emailearen erroldako inskripzio-ziurtagiria ez ezik, posta bidez bozkatzeko gutun-azala ere badagoela.

Erroldako inskripzioaren ziurtagiria falta bada, gutun-azala suntsitu egin behar da barruko dokumentazio guztiarekin. Izan ere, boto hori ez da ez balioduna ez baliogabea ez zuria.

Mahaiko lehendakariari bidalitako gutun-azalaren barruan “gastuak itzultzeko eskaera” aurkitzen baduzu, 1 zenbakiko gutun-azalean sartu egin beharko duzu, boto-kontaketaren amaieran prestatuko den hauteskunde-dokumentazioarekin batera.

2. Egiaztatu boto-emailea Mahaiko erroldan inskribaturik dagoela.

3. Bozkatzeko gutun-azal bakoitza dagokion hautestontzian sartu.

4. Hauteslearen izena idatzi boto-emaileen zerrenda zenbakidunean. Bokalei dagokie izena idaztea.

## 2. MAHAIKOEK ETA ARTEKARIEK BOTOA EMAN

Ondoren, mahaikoek eta artekariek emango dute botoa.

Artekariren bat Mahaiko erroldan ageri ez bada, zein atal eta hauteskunde-mahaitan inskribatuta dagoen jarri behar da boto-emaileen zerrenda zenbakidunean.

## 3. BOTO-EMAILEEN ZERRENDA ZENBAKIDUNA SINATU

Bokalek eta artekariek boto-emaileen zerrenda sinatuko dute

- orri bakoitzaren ertzean, eta
- idatzitako azken izenaren azpi-azpian.

## 4. BOTOAK ZENBATU

Bozketa amaiturik, berehala eta etenunerik gabe, botoak zenbatu egingo dira.

Boto-kontaketa jendaurreko ekitaldia da, eta ezin da gelditu harik eta egindako hauteskunde guztietako boto guztiak zenbatu arte.

Boto-kontaketa ikustera ikusle gisa joango diren pertsonek ezin izango dute erreklamaziorik edo kexarik egin boto-kontaketa egiten den bitartean.

Mahaiko lehendakariak berehala kanporatuko ditu botoak zenbatzeko trabak edo nahasteak eragiten dituzten pertsonak.

BOTOAK ZENBATZEKO HURRENKERA

**Hurrenkera honetan zenbatuko dira:**

1. Diputatuen Kongresurako hauteskundeetako botoak.
2. Senaturako hauteskundeetako botoak.

**HAUTESKUNDE BAKOITZEKO BOTOAK HONELA ZENBATU BEHAR DIRA:**

1. **Mahaiko lehendakariak hautestontzia ireki, banan-banan gutun-azalak atera, ireki eta ahots ozenez irakurriko ditu boto-paperak.**

   **Gogoan izan:** Senaturako boto-paperak zenbatzeko, emandako txantiloia erabil dezakezu.

2. **Irekitako gutun-azalak gorde egin behar dira,** gutun-azalen kopurua eta boto-emaileen zerrenda zenbakidunean jaso diren boto-emaileen kopurua bat datozela egiaztatzeko.

   Gutun-azalak eta boto-paperak aztertzean, hautagai-zerrendei emandako botoez gain, aurki daitezke:

   • boto zuriak, eta

   • boto baliogabeak

   Bi boto mota horiek bereiz zenbatu behar dira, bozketaren emaitza zehazteko.

   - **BOTO ZURIAK** dira:

     - Barruan boto-paperik ez duten gutun-azalak.
     - Inongo hautagairik markatuta ez duten boto-paperak, Senaturako hauteskundeetan.

   - **BOTO BALIOGABEAK** dira**:**

     - Eredu ofizialaz besteko gutun-azal edo paperetan emandako botoak.
     - Gutun-azalik gabeko boto-paperak.
     - Aldatuta dauden gutun-azaletan emandako botoak.
     - Hautagaien izenak aldatu, gehitu edo marratuta dituzten boto-paperak, hautagai-zerrendaren ordena aldatuta dutenak, esaldiak edo leloak dituztenak, edo nahita egindako beste edozein aldaketa dutenak.
     - Diputatuen Kongresurako hauteskundeetan, hautagai-zerrenda bat baino gehiagoren boto-paperak dituzten gutun-azalak (boto-paper guztiak hautagai-zerrenda berekoak badira, boto baliodun bakarra kontatuko da).
     - Senaturako hauteskundeetan, hiru hautagai baino gehiago markatuta dituzten boto-paperak; Kanaria Handia, Tenerife, Mallorca, Ceuta eta Melillan, bi hautagai baino gehiago markatuta dituztenak, eta Menorca, Eivissa-Formentera, Fuerteventura, Gomera, Hierro, Lanzarote eta La Palman, bat baino gehiago markatuta dutenak.

**<u>Gogoan izan</u>: baliozkotzat joko dira beraz kontaketan**, hautagairen baten alboan seinale, gurutze edo ikoroski bat daramaten paperetan emandako botoak, baldin eta marka horiek nahiko garrantzi edo funtsik ez badute irizteko ezen haiekin paperaren eitea aldatu dela edo hautagaien edo haien alderdi politikoaren aurkako gaitzespena dagoela.

3. **Mahaiko lehendakariak boto-papera irakurriko du, eta ondoren, bokal, artekari eta ahaldunei erakutsiko die.**

   Notarioek, hautagaiek eta hautagai-zerrendetako ordezkariek boto-paperak eska ditzakete, mahaikoen aurrean aztertzeko, edukiari buruz zalantzarik izanez gero.

4. **Mahaiak egiaztatuko du gutun-azalen kopurua eta boto-emaileen zerrenda zenbakidunean jaso diren boto-emaileen kopurua bat datozela.**

5. **Mahaiko lehendakariak galdetuko du ea inork protestarik edo erreklamaziorik egin nahi duen** dagokion hauteskundeko boto-kontaketaren aurka; hala bada, Mahaiak gehiengoz hartuko du erabakia.

6. **Boto-paperak suntsitu egingo dira jendaurrean.**

   - BAINA EZ DIRA SUNTSITU BEHAR honako boto-paper hauek:

   - Baliogabetzat jo direnak (boto baliogabeak).
   - Erreklamazioren bat izan dutenak.

   Suntsitu gabeko boto-paperekin hauxe egin behar da:

   - Mahaiko kideek sinatu egingo dituzte.
   - Dagokion bilkura-aktari erantsiko zaizkio (boto-kontaketa amaitu eta akta egiten denean).
   - Hauteskunde-agiriekin batera jasoko dira (1 zenbakiko gutun-azalean), eskuliburu honetan dagokion atalean adierazten den bezala.

## 5. <u>BOZKETAREN EMAITZAREN BERRI EMAN</u>

Mahaiko lehendakariak, ahots ozenez, bozketaren emaitzaren berri emango du, datu hauek emanez:

- ➢ Erroldatutako hautesleen kopurua (hautesle-erroldako zerrendetan ageri direnak, bai espainiarren zerrendetan, bai, halakorik bada, atzerritarren zerrendetan).
- ➢ Aurkeztutako errolda-ziurtagirien kopurua (bereizita adierazi behar dira erroldako alta-ziurtagiriak eta akats materialak zuzentzeko ziurtagiriak) eta epaiak, halakorik baldin badago.

- Boto-emaileen kopurua.
- Boto baliogabeen kopurua.
- Boto zurien kopurua.
- Hautagai-zerrenda bakoitzak lortutako boto kopurua, Diputatuen Kongresurako hauteskundeetan, edo hautagai bakoitzak lortutakoa, Senaturako hauteskundeetan.

## 6. <u>BOTO- KONTAKETAREN AKTA EGIN</u> (ikus eredua 7 orrialdean)

Egindako hauteskunde bakoitzeko boto-kontaketaren akta bat beteko da. Erroldako alta-ziurtagirien eta akats materialak zuzentzeko ziurtagirien atalean, epaiak ere sartuko dira, halakorik balego eta dagokionaren arabera.

a) Akta egin ondoren, Mahaiko lehendakariak, bi bokalek eta hautagai-zerrendetako artekariek sinatuko dute.

b) Jatorrizko akta hauteslekuaren sarreran jarriko da.

c) Kopiak emango zaizkie pertsona hauei, hemen ageri diren hurrenkeran:

- Lehenengo, administrazioaren ordezkariari.

Administrazioak izendatutako ordezkari horrek hauteskunde-mahaiko boto-kontaketaren aktaren kopia jasoko du, Gobernuak hauteskundeetako behin-behineko emaitzak eskaini ahal izateko.

- Ondoren, hautagai-zerrendetako ordezkariei, artekariei, ahaldunei edo hautagaiei, hala eskatuz gero.

Hautagai-zerrenda bakoitzeko aktaren kopia bakarra emango da.

## 7. <u>BILKURA-AKTA EGIN</u> (Ikus eredua 8 orrialdean)

Egindako hauteskunde bakoitzeko bilkura-akta bat beteko da.

a) Bilkura-aktaren inprimakiak bete.

b) Aktak sinatuko dituzte Mahaiko lehendakariak, bi bokalek eta hautagai-zerrendetako artekariek.

c) Kopiak emango zaizkie hautagai-zerrendetako ordezkariei, artekariei, ahaldunei eta hautagaiei, hala eskatuz gero.

## MAHAIAREN EGINKIZUNEN AMAIERA: HAUTESKUNDE-DOKUMENTAZIOA PRESTATU ETA AURKEZTU

Aurreko lanak amaitu ondoren, egindako hauteskundeetariko bakoitzari buruzko agiriak prestatuko dira. Honela egingo da:

### 1. HAUTESKUNDE-AGIRIAK HIRU GUTUN-AZALETAN BANATUKO DIRA

Gutun-azal horietan agiri hauek sartuko dira:

- **1 ZENBAKIKO GUTUN-AZALA:**

  - Mahaiaren eraketa-aktaren jatorrizko alea.

> **Gogoan izan:** Mahaiaren eraketa-akta agiri bakarra da egin beharreko prozesu guztietarako, Mahaia bakarra da eta.
>
> Mahaiaren eraketa-akta kopia-paperean egingo da, eta Mahaiko kideek behar beste ale edukiko dituzte gutun-azal guztiak prestatzeko eta kopiak jaso behar dituztenei kopiak emateko.

  - Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskundeen bilkura-aktaren jatorrizko alea.
  - Bilkura-aktetan aipatzen diren agiriak:
    - Boto-emaileen zerrenda zenbakiduna.
    - Boto-paper baliogabeak edo erreklamazioren bat jaso dutenak.
    - Erabili diren hautesle-erroldako zerrendak.
    - Hala badagokio, aurkeztutako errolda-ziurtagiriak eta/edo epaiak.
    - Artekarien egiaztagutunen kopiak, edo egiaztagutunak berak, kopiak jaso ez badira.
  - Posta bidezko botoa bidaltzeagatik sortutako posta-gastuak itzultzeko eskaerak, halakorik egonez gero.

- **2 ETA 3 ZENBAKIKO GUTUN-AZALAK:**

  2 eta 3 zenbakiko gutun-azaletan agiri hauek sartuko dira:

  - Mahaiaren eraketa-aktaren kopia.
  - Bilkura-akten kopia.

## 2. GUTUN-AZALAK ITXI ETA SINATU EGINGO DIRA

Mahaiko lehendakariak, bokalek eta artekariek sinatu egingo dituzte, sinadurek azal-hegalak gurutzatzen dituztela.

## 3. GUTUN-AZALAK AURKEZTU EGINGO DIRA

- **1 ETA 2 ZENBAKIKO GUTUN-AZALAK**

- Mahaiko lehendakariak Mahaiari dagokion barrutiko lehen auzialdiko epaitegian edo bake-epaitegian aurkeztu behar ditu 1 eta 2 zenbakiko gutun-azalak.

  Nahi izanez gero, bokal bat eta artekariak ere joan daitezke Mahaiko lehendakariari laguntzera.

  Segurtasun Indar eta Kidegoek pertsona horiei lagun egingo diete eta, behar izanez gero, bidaia erraztuko diete.

- Epaileak agiriak jasoko ditu eta hartu-agiria sinatuko du (hartu-agiria Mahaiaren agirien artean egon behar da).

| |
|---|
| BEHIN 1 ETA 2 ZENBAKIKO GUTUN-AZALAK EPAILEARI EMANDA, AMAITU DIRA EPAITEGIRA JOAN DIREN MAHAIKO KIDEEN EGINKIZUNAK. |

- **3 ZENBAKIKO GUTUN-AZALA**

- Bokaletako batek, gutxienez, hauteslekuan egon behar du, harik eta 3 zenbakiko gutun-azala Posta Zerbitzuko langile bati entregatu eta hark hartu-agiria sinatu arte (hartu-agiriak Mahaiaren agirien artean egon behar du).

| |
|---|
| 3 ZENBAKIKO GUTUN-AZALA POSTA-ZERBITZUKO LANGILEARI EMAN ONDOREN, AMAITU DIRA HAUTESLEKUAN GERATUTAKO MAHAIKO KIDEAREN EGINKIZUNAK. |

# HAUTAGAI-ZERRENDETAKO ARTEKARIAK ETA AHALDUNAK

## ARTEKARIAK

- Hautagai-zerrenda bakoitzak bi artekari izenda ditzake Mahai bakoitzeko. Artekariek akreditatuta dauden Mahaian bakarrik jardun dezakete.
- Artekariek Mahaikoei lagun diezaiekete eta haien eztabaidetan parte har dezakete, hizpidearekin baina botorik gabe. Parte-hartze horretan, Mahaian akreditatutako artekariak, hautagai-zerrenda berekoak badira, elkarren ordez aritu daitezke.
- Erreklamazioak eta protestak egin eta ziurtagiriak eskatu ahal izango dituzte.
- Akreditatuta dauden Mahaian emango dute botoa, baldin eta Mahaiari dagokion barrutiko erroldan agertzen badira, nahiz eta Mahai horretako erroldan agertu ez. Osterantzean, postaz baino ezingo dute botoa eman. Behin bakarrik bozka dezakete. Hauteskunde berean birritan edo gehiagotan bozkatzea hauteskunde-delitua da.

## AHALDUNAK

- Hautagai-zerrendaren ordezkari jarduten dute hauteskundeetako ekintza eta eragiketetan, hautesleku guztietara sar daitezke nahi dutenean, bozketaren eta boto-kontaketaren nondik norakoa azter dezakete edozein Mahaitan, erreklamazio eta protestak egin ditzakete, eta ziurtagiriak eska ditzakete.
- Beren hautagai-zerrendetako artekaririk ez badago, Mahaian artekari jardun dezakete eta Mahaiaren eztabaidetan parte hartu, hizpidearekin baina boto eskubiderik gabe.
- Ahaldunek beren burua identifikatu behar dute, ahaldun-egiaztagutuna eta nortasun-agiri nazionala mahaikoei erakutsiz.
- Ezin dute Mahaian bozkatu, Mahaiko erroldan egon ezean.

## ARTEKARIAK ETA AHALDUNAK

Artekariek eta ahaldunek ordezkatzen duten erakunde politikoaren ikurrak edo eranskailuak eraman ditzakete, baina hautagai-zerrenda horretako artekari edo ahaldun gisa euren burua identifikatzeko soilik, eta hauteskunde-propagandarik egin gabe.




AHALDUN-EGIAZTAGUTUNAREN EREDUA

# ORDENA PUBLIKOA

Mahaiko lehendakariak du hauteslekuaren barruan, are inguruetan ere, ordena publikoari buruzko arauak betearazteko erantzukizuna, hautesleen boto-askatasuna bermatuta egon dadin eta legea bete dadin.

## 1. Mahaiko lehendakariaren ahalmenak.

- Hauteslekuaren barruan aginte osoa dauka ordena publikoa betearazteko.
- Horretarako, hauteslekuak babesteko ardura duten Segurtasun Indar eta Kidegoei esku hartzeko eskatu ahal izango die, eta horiek, eskatutako laguntza emango dute.

## 2. Ordena publikoari buruzko arauak.

- Hauteslekuko sarrera beti egon behar da trabarik gabe eta irekita hauteslekura sartzeko eskubidea duten pertsonentzat.

Pertsona hauek dira hauteslekuetara sartzeko eskubidea dutenak:

- Hautesleak, eta haien laguntzaileak, behar izanez gero.
- Hautagai-zerrendetako ordezkariak.
- Hautagaiak.
- Ahaldunak eta artekariak.
- Notarioak.
- Agintaritzaren agenteak, Mahaiko lehendakaria deituz gero.
- Hauteskunde-batzordeko kideak.
- Instrukzioko epaileak eta haien eskuordetuak.
- Administrazioaren ordezkariak.

Gainerakoek Mahaiko lehendakariaren baimena behar dute hauteslekuan egoteko.

- Hauteslekura sartzeko traba egin dezaketen taldeak eratu daitezen eragotzi behar da hauteslekuan edo inguruetan.
- Hauteslekuaren inguruetan ez da onartu behar boto-eskubidea askatasunez erabiltzeko oztopo izan daitekeen inor egotea. Mahaiko lehendakariak egokitzat jotzen dituen neurri guztiak hartu behar ditu hori eragozteko.
- Inor ezin da hauteslekuan sartu armekin edo arma gisa erabil daitezkeen tresnekin, hauteslekua babestu behar duten agenteak izan ezik, Mahaiko lehendakariak hala eskatuz gero.
- Ez hauteslekuan ez inguruetan ezin da hauteskunde-propagandarik egin.

## 3. Gorabeheren berri jasotzea bilkura-aktan.

Hauteslekuko ordena hautsi duten gorabeherak bilkura-aktan jasoko dira, eta horien eragileen izen-abizenak jarriko dira.